

**2018ko ABENDUAREN 12ko  
UDAL OSOKO EZOHICO BILKURA**

Elduainen, Udaletxeko bilera aretoan, aurrez egindako deira, 2018ko abenduaren 12an, arratsaldeko zortziretan, Udalaren Batzar osoa biltzen da ez ohiko saioan, behean aipatzen diren zinegotziak, Jose Angel Urkizu Odriozola Alkatearen lehendakaritzapean.

Zinegotziak:

- Juan Ramon Gurrutxaga Lasa
- Goreti Soroa Martinez
- Maite Bizkarrondo Arzallus

Ez da/dira batzarreratu

- Miren Amaia Askasibar Agirre

Bertan dago eta fede ematen du Udaleko idazkari kontu-hartzaileak:

- Maria Pilar Garmendia Miguel

Osoko Bilkura legez osatzeko behar adinako kopuruak parte hartzen duela egiaztatu ondoren, presidentek, 20:00 ordu direnean, bilkura irekitzat ematen du eta gai-zerrendako puntuen azterketari ekiten da.

**GAIEN ZERRENDA:**

**ALDERDI ERABAKITZAILEA**

1. 2019.KO URTEKO UDALAREN AURREKONTUA, LANTALDE ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ERLAZIOA HASIERA BATEZ ONARTZEKO PROPOSAMENA.
2. ELDUAINGO HAPO-RI AURKEZTUTAKO IRADOKIZUNEN ANALISIA ETA ERANTZUNAK ETA HAPO-REN OINARRIZKO IRIZPIDE ETA HELBURUAK ONARTZEKO PROPOSAMENA.
3. PLAN EKONOMIKO FINANTZARIOA ONARTZEKO PROPOSAMENA,

## LEHENENGO PUNTUA

### 2019.KO URTEKO UDALAREN AURREKONTUA, LANTALDE ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ERLAZIOA HASIERA BATEZ ONARTZEKO PROPOSAMENA.

2019 ekitaldirako Udal Aurrekontuaren proiektuak honako kapituluko laburpena azaltzen du:

SARERRAK	2019 Aurrekontua
I. ZUZENEKO ZERGAK	80.500,00
II. ZEHARKAKO ZERGAK	3.500,00
III. TASAK ETA BESTELAK SARRERAK	22.680,00
IV. TRASFERENTZI ARRUNAK	271.326,84
V. ONDAREZKO SARRERAK	0,00
VI. INBERTSIO ERREALAK INORENGANATZEA	0,00
VII. KAPITAL TRASFERENTZIAK	0,00
VIII . AKTIBO FINANTZARIOAK	78.128,16
IX. PASIBO FINANTZARIOAK	0,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>456.135,00</b>
GASTUAK	2019 Aurrekontua
I. PERTSONAL GASTUAK	144.590,00
II. ONDARE ARRUNT ETA ZERBITZU	64.475,00
III. MAILEGU INTERESAK	0,00
IV. TRASFERENTZI ARRUNTAK	26.775,00
VI. INBERTSIO ERREALAK	210.245,00
VII. FINANTZA AKTIBOAK	4.050,00
IX . MAILEGU AMORTIZAZIOAK	6.000,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>456.135,00</b>

Aurrekontuan derrigorrezko gastuei aurre egiteko behar diren kredituak jarri behar dira. Hauek dira, besteak beste, derrigorrezko gastuak: zor exigigarriak, zentsuak, pentsioak, finantza kargak; beharrezko izaera duten zerbitzu emateen gastuak, langileenak, bulego material eta dependenzienak; entitateari egotzitako zerbitzuak ordaintzeko zuzenduriko gastuak, aurrez zehaztutako hitzarmen eta konpromisoetatik datozen gastuak nahiz behar eta presa nabarmena duten obrak eta instalazioak egitetik datozen gastuak.

Idazkari kontu-hartzaileak beharrezkoa den txosten ekonomiko-finantzarioa egin du.

Eta besterik gabe bozketa egin da.

Eta gertatutako emaitzaren arabera, ERABAKI DA:

**LEHENA:** Aurkeztu den eta jasota geratu den kapituluko laburpena duen 2019. ekitaldiko udal Aurrekontuaren proiektua, Udal Plantilla Organikoa eta Lanpostuen zerrenda hasierako izaeraz onartzea.-

**BIGARRENA:** Espediente osoa erabaki honekin batera arauzko jendaurrekoan ezarriko da.-

**HIRUGARRENA:** Jendaurreko epealdian erreklamaziorik aurkezten ez bada, aurrekontua behin-betiko onetsitaz joko da.

Erreklamazioa egiteko gaitasuna dute: Uztailaren bosteko 11/1989 Foru Arauaren 17. artikulua aipatzen dituenak.

Aurkezteko tokia: udalaren sarrera errejistroan.

Nori zuzendu erreklamazioa: Udal Batzarra.

**LAUGARRENA:** Erakustaldiaren epea inolako erreklamazio edo oharpenik aurkeztu gabe igaroko balitz, hartutako erabakiak behin-betirako onartutzat hartuko dira. Erreklamaziorik aurkeztu gero, Udalbatzarrak ebatziko ditu.

**BIGARREN PUNTUA:**

**ELDUAINGO HAPORI AURKEZTUTAKO IRADOKIZUNEN ANALISIA ETA ERANTZUNAK ETA HAPOREN OINARRIZKO IRIZPIDE ETA HELBURUAK ONARTZEKO PROPOSAMENA.**

Udaleko Zerbitzu Teknikoek bi agiri aurkeztu dituzte: Hiri Antolamenduko Plan Orokorra berriz aztertze aurrelaburpeneko kriterioak eta helburuak batetik, eta aurrelaburpena jendaurrean egon den bitartean eginiko iradokizunen eta ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunterako hasierako dokumentu estrategikoaren inguruko txostena bestetik. Hasierako dokumentu estrategikoa EKOS Estudios Ambientales, S.L.U. enpresak prestatu du.

Osoko Bilkurak 2018ko uztailaren 4ean eginiko bileran erabaki zuen HAPO berriz aztertze aurrelaburpena jendaurrean jartzea bi hilabetez, bidezkoak iruditzen ziren iradokizunak eta alternatibak aurkezteko aukera emateko.

Erabaki hura 2018ko uztailaren 20ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta iragarki-taulan ere egon zen 2018ko uztailaren 5etik.

Jendaurrean egon zen denboran, 4 idatzi aurkeztu ziren, iradokizunekin eta alternatibekin.

2018ko azaroaren 26an Zebra Lab Arquitecturak eta EKOS Estudios Ambientales, S.L.U. sinatu zuten txostenean, iradokizunen idatzi guztiak aztertu eta erantzun egin dira.

Txostenean, idatzi bakoitza aztertu da eta iradokizun eta alternatiba bakoitza ontzat eman da edo atzera

bota da.

Lurzoru eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 90.4 artikulua hau xedatzen du: "Jendaurreko erakustaldiaren eta herritarren eta erakundeen parte-hartzearen emaitzak aztertuta, udalak plan orokorra idazteko oinarritzko irizpide eta helburuak zehaztuko ditu".

Komeni da gogoratzea, era berean, ekainaren 23ko 2159/1978 Errege Dekretu bidez onartu zen hirigintza-plangintzari buruzko Erregelamenduko 125. artikuluko 2 eta 3. puntuek xedatzen dutena: "2.- Plana idazteko mandatua duten organismoko edo udaleko zerbitzu teknikoek eta adituek aurkeztutako iradokizunak eta alternatibak aztertu eta plangintzako kriterio eta irtenbide orokorrak berrestea edo zuzentzea proposatuko dute. 3.- Plana prestatzeko ardura duen organismoak edo udalak dagokiona erabakiko du kriterio eta irtenbide orokorreari dagokienez, jendaurrean egon diren denboran jasotako emaitzak eta eginiko azterketa teknikoak kontuan hartuz, eta Plana kriterio eta irtenbide horien arabera prestatuko da."

Horrela, bada, hirigintzari buruzko legeriak udalari aitortzen dio irizpideak eta helburuak onartzeko eskumena, udaleko zein organori dagokion zehaztu gabe.

Osoko Bilkurari plangintzaren arloan espresuki aitortzen zaion eskumena 123. artikuluko 1. ataleko i) puntuan agertzen da: "Plangintza orokorrari hasierako onarpena ematea eta hirigintzari buruzko legeriak xedatzen dituen plangintzako planen eta gainerako tresnen udal-tramitazioari amaiera emateko onarpena ematea".

Lege-xedapenen azterketa osatzeko, 124. artikuluko ñ) atala hartu behar da kontutan. Hor esaten da alkatearen hondar-eskumenen artean daudela legeek eta Estatuko edo autonomia erkidegoetako legeriak espresuki udalei, eta ez beste inolako udal-organoei, aitortzen dizkien gainerako eskumenak.

Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen aplikazioa hedatzen badugu, Legearen beraren filosofia eta xedapenen esanahia kontuan hartuz, uste dugu Osoko Bilkurari dagokiola behin betiko kriterioak eta helburuak onartzea.

Lehenik eta behin, Osoko Bilkurari dagokiolako behin betiko onespeneak ematea eta, bilera honetan, Plan Orokorraren oinarrian egongo diren behin betiko kriterioak eta helburuak onartuko dira eta funtsezko erabakiak hartuko dira plan horren edukiaren eta xedapenen inguruan.

Printzipio horiek balio juridiko garrantzitsua izango dute Planeko proposamenak eta xedapenak garatzerakoan.

Horregatik guztiagatik, dagokion akordioa hartzea proposatzen zaio Osoko Bilkurari.

Osoko Bilkurak gehiengo osoz erabaki du:

**LEHENA.-** Onartzea Hiri Antolamenduko Plan Orokorra berriz aztertzeko aurrelaburpeneko kriterioak eta helburuak, Zebra Lab Arquitecturak eta EKOS Estudios Ambientales, S.L.U enpresak iradokizunen inguruan eginiko balorazio-txostenera moldatuta.

**BIGARRENA.-** Idatziak iradokizunekin aurkeztu dituzten pertsonen erantzutea, Udaleko Zerbitzu Teknikoen balorazio-txostenean adierazitakoaren kopia emanaz.

**HIRUGARREN PUNTUA:**

**PLAN EKONOMIKO FINANTZARIOA ONARTZEKO PROPOSAMENA.**

Entitate honek 2018ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa onartu du, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontsieluan onartutako "Gipuzkoako toki entitateek aurrekontuak prestatu, onartu eta gauzatzeko jarraitu beharreko erregelak onartzen dituen jarraibidea"n jasotako aurrekontu egonkortasunaren helburua eta zor publikoaren helburua betez.

Aldiz, 2018ko aurrekontuak bere likidazio fasean ez du betetzen gastu araua. Egoera honek datozen lau urteetarako plan ekonomiko finantzario bat onartzeko obligazioa izatera eramaten du Udal hau.

Udalbatzari aurkezten zaio onartu dezan, aurrekontu arloko legedian xedatzen diren aurrekontu egonkortasunaren helburua, zor publikoaren helburua et gastuaren helburua, modu justifikatuan betetzen dituela egiaztatzen duen bi urteko plana, zeina akta honi atsekitzen zaion II eranskin modura.

Hori dela eta, Udal Batzarrak, ERABAKI DU:

**BAKARRA:** 2018-2019 epealdiko aurrekontuen aurreikuspenen datuen arabera plan ekonomiko eta finantzarioa onartzea

Eta, 20.45 ordu direnean, lehendakariak batzarra amaitutzat jotzen du, eta gertatuakoaren berri agerian gera dadin, Alkatearen oniritzia jasota, akta hau prestatu eta sinatzen dut.

Elduain, 2018ko abenduaren 12an.

O.e.  
Alkateak ,

Idazkari Kontu-Hartzaileak,

Jose Angel Urkizu Odriozola

Maria Pilar Garmendia Miguel